EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98
Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98
Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

# Bestelako Xedapenak

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2858

AGINDUA, 2004ko maiatzaren 12koa, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuarena. Horren bidez, biodibertsitatearen babeserako eta ingurumen-hezkuntzarako eremuak eta/edo eraikinak eraberritu edota eraikitzeko inbertsioak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei eta beste Toki-erakunde batzuei dirulaguntzak ematea arautzen duen Agindua 2004. ekitaldian aplikatzeko egokitzen da.

2003ko abenduaren 23an Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren konturako laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituzten hainbat xedapenen indarraldia luzatzeari buruzko 317/2003 Dekretua onartu zen, hala agintzen baitu indarrean dauden Euskadiko Aurrekontuen Erregimenari buruzko legezko xedapenen testu bategina onesten duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren IX. Tituluak. Horretarako, Jaurlaritzak, Sailek eta Erakunde Autonomoek epeak, baldintzak eta betekizunak egokitu ahal izango dituzte 2004ko ekitaldian aplikatzeko.

2003ko ekitaldian, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak 2003ko uztailaren 30ean eman zuen biodibertsitatearen babeserako eta ingurumen-hezkuntzarako eremuak eta/edo eraikinak eraberritu edota eraikitzeko inbertsioak egiten dituzten Udalei, Mankomunitateei eta beste Toki-erakunde batzuei dirulaguntzak ematea arautzen duen Agindua, Euskal Herriko Agin-

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-2858

ORDEN, de 12 de Mayo de 2004, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se adapta para su aplicación durante el ejercicio 2004 la Orden por la que se regula la concesión de subvenciones a Ayuntamientos, Mancomunidades u otras Entidades Locales, para la realización de inversiones destinadas a la creación y/o restauración de áreas y/o edificios para la protección de la biodiversidad y la educación ambiental.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 317/2003, de 23 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2004.

En el ejercicio 2003, se dictó la Orden de 30 de julio de 2003, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se regula la concesión de subvenciones a Ayuntamientos, Mancomunidades u otras Entidades Locales para la realización de invesrsiones destinadas a la creación y/o restauración de áreas y/o edificios para la protección de la Biodiversi-

taritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2003ko irailaren 1ean, 169. zenbakian. Beraz, aipatutako Agindua 2004ko ekitaldian aplikatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta epeak egokitzea bidezkoa da.

Hori dela eta, honakoa

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Eskaerak aurkezteko epea.

2003ko uztailaren 30ean emandako Aginduaren bidez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak biodibertsitatearen babeserako eta ingurumen-hezkuntzarako eremuak eta/edo eraikinak eraberritu edota eraikitzeko inbertsioak egiten zituzten Udal, Mankomunitate eta beste Toki-erakunde batzuetako 2003. urterako dirulaguntzak arautu zituen. 2004ko ekitaldian diru-laguntza horien deialdian aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

*2. artikulua.–* Eskaerak eta aurkeztu behar den dokumentazioa.

Erakunde eskatzaileek Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Biodibertsitatearen Zuzendaritzara (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) zuzendu beharko dituzte eskaerak, 2003ko uztailaren 30eko Aginduaren 6.2. artikuluan eskatzen den dokumentazioarekin batera, eta Saileko erregistro nagusian aurkeztu beharko dituzte edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio prozedura Erkidearenekoa denak, aurreikusten dituen edozein eratan.

*3. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

Agindu honetan zehazten diren diru-laguntzak ordaintzeko seiehun eta berrogeita hamar mila (650.000) euro daude 2004ko eta 2005eko ekitaldietan, horretarako EAEko Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontuko kredituen kontura.

XEDAPEN GEHIGARRIA

3. artikuluan guztira izendatutako diru-zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskatutako dirulaguntzen kopuru osoa kontuan izanda, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak beste programa batzuk gauzatu ondoren izango duen aurrekontuko diru-baliabideen arabera eta horien ebazpena eman aurretik. Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordearen ebazpen bidez emango da egoera horren berri.

dad y la educación ambiental, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 169, de 1 de septiembre de 2003, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Orden durante el ejercicio 2004.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Plazo de presentación de solicitudes

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por Orden de 30 de julio de 2003, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se regula la concesión de subvenciones a Ayuntamientos, Mancomunidades u otras Entidades Locales para la realización de inversiones destinadas a la creación y/o restauración de áreas y/o edificios para la protección de la biodiversidad y la educación ambiental, en el ejercicio 2004, será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Artículo 2.–*** Solicitudes y documentación a presentar.

Las entidades solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente Orden deberán dirigirlas, junto con la documentación exigida en el articulo 6.2 de la Orden de 30 de julio de 2003, a la Dirección de Biodiversidad, Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, calle Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz, y serán presentadas en el Registro General del citado Departamento ó en cualquiera de las formas previstas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 3.–*** Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, la cantidad de seiscientos cincuenta mil euros (650.000 euros), de conformidad con lo dispuesto en los créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV, para los ejercicios 2004 y 2005.

DISPOSICION ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 3 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, y con carácter previo a la resolución de las mismas, dándose publicidad de este extremo mediante la correspondiente Resolución del Ilmo. Sr. Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Biodiversidad.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Administrazio bidea agortzen duen Agindu honen kontra, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari, hilabeteko epean, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, egun beretik zenbatzen hasita.

*Bigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean ekarriko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 12a.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

*Segunda.–* La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2004.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## Zk-2859

EBAZPENA, 2004ko apirilaren 23koa, Ingurumen sailburuordearena, Oiartzunen 71. areako («Lintzirin Gaina») lurzoru industrial berria urbanizatzeko proiektuak Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1997 Lege orokorraren arabera, I. Eranskineko B) idatz-zatian agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jardunbide baten menpe izango dira eta jardunbide honi amaiera emateko Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokie, baimentzeko, hartzen den administrazio erabakiaren aurretik.

Hasi da Oiartzungo 71. areako («Lintzirin Gaina») lurzoru industrial berria urbanizatzeko proiektua onartzeko jardunbidea, eta horrekin zerikusia duten izapideak gauzatu dira, otsailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko 3/1998 Legeari eta Ingurumenaren gaineko eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretuari, eta hori garatzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuari jarraituz. Honakoak dira izapide horiek:

## N°-2859

RESOLUCIÓN de 23 de abril de 2004, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se formula la Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de urbanización del nuevo suelo industrial del área 71 «Lintzirin Gaina» de Oiartzun.

De conformidad con la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, los proyectos contemplados en el apartado B) de su Anexo I quedan sometidos al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, que culmina en una Declaración de Impacto Ambiental a formular con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los citados proyectos.

Iniciado el procedimiento de aprobación del Proyecto de urbanización del nuevo suelo industrial del área 71 «Lintzirin Gaina» de Oiartzun, y resultando de aplicación lo dispuesto tanto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, como el Real Decreto Legislativo 1302/1986 de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental y Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre por el que se aprueba el Reglamento para su desarrollo, se han formalizado en relación con el mismo, entre otros, los trámites que a continuación se relacionan: